

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako eta EAeko Gobernuak akordio bat sinatu dute Foru Poliziaren eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa areagotzeko

Akordioak bi polizia-kidegoen artean informazioa eta baterako operazioak trukatzeko protokolo bat jasotzen du

Miércoles, 25 de junio de 2014

Nafarroako Gobernuo Presidentetza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrásék eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburu Estefanía Beltrán de Herediak Nafarroako Foru Poliziaren eta Ertzaintzaren arteko lankidetzaprotokolo bat sinatu dute gaur goizean Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren, bi polizia-kidegoen arteko koordinazioa areagotzeko, informazioa, esperientziak eta baterako operazioak trukatzearen bidez.



Kontseilariak akordioa sinatzen.

Akordioaren helburua lankidetz formalizatu eta arautzea da, dagoeneko existitzen diren harremanak finkatzeko eta programa, plan, estrategia, material eta teknologian elkarrekiko laguntzan sakontzeko. Nafarroako Gobernuo Presidentzia, Justizia eta Interior-eko Sailburuak, Javier Morrás jaunak azpimarratu du: *“Hiritarrei zor diegu zerbitzu publikoak konpententzia edo muga kontuengatik ez oztopatuak izatea; agintari publikoek martxan jar ditzatela arazoak konpontzeko beharrezko diren bitarteko operatibo eta instituzionalak”*.

«Eraginkortasun handiagoa izateko, beharrezkoa da gainera topaketarako organo formalak izatea, elkarrekiko harremana indartzea, bi polizia-kidegoen arteko lankidetz eta koordinazioa sendotzea», Segurtasuneko sailburu Estefanía Beltrán de Herediak esan duenez.

Bi polizia-erakundeek egin izan dituzte informazio-trukeak eta elkarrekin hainbat ekintza. Azken horien artean, Kaiku operazioa nabarmentzen da: Nafarroako eta Gipuzkoako muga jarduten zuten gaizkile-talde bat atxilotu zuten. Era berean, ohikoa da neguko bidezaintza-lankidetz herritarren segurtasunerako kontuetan, batez ere, Elizondoko, Altsasuko eta Lizarrako komisaldegietan, baita genero-indarkeriaren kasuetan ere.

Jarduera-esparruak eta solaskideak

Protokoloaren testuan jasotzen den moduan, koordinazioa beste

eremu batzuetara ere zabalduko dute: polizia-prozedurak eta - operatiboak, antolatutako sare kriminalen kontrako borroka eta prebentzioa, ohiko delinkuentzia, zirkulazio-bideak ebakitzea (baldin eta autonomia-erkidego biei eragiten badiete), eta abar.

Dokumentuak era berean ezartzen du bi taldeen arteko komunikazio-sistema. Esandako sistema hori era batekoa edo bestekoa izango da eskariaren urgentziaren arabera.

Esate baterako, ohiko delinkuentziarekin edota delinkuentzia antolatuarekin lotutako ikerketen kasuan, premiazko kontuak ez direnean, informazio-eskaerak polizia-erakunde bakoitzean zehaztutako interlokuzio gune jakinera bideratuko dira. Adibide bat ematearren, txosten polizialak, aurrekari polizialen orriak, atestaturen edota salaketen eskaerak, eta tankera horretakoak.

Bestalde, martxan diren operazioen edota komunikazio urgenteen kasuan, interlokuzioa aginte- eta kontrol-zentroeiei egokituko zaie. Komunikazio urgente horien artean sartzen dira: bi autonomia-erkidegoetako mugako udalerrietan izandako delitu-gertakariak, beste poliziarentzat garrantzitsu izan daitezkeen ibilgailu-lapurreak, edota neurri handiko ezbeharrak edota istripuak, bi lurraldeak lotzen dituzten komunikazio-bideak mozten dituztenak.

Euskal ordezkariaren aldetik, Segurtasuneko sailburu Josu Zubiaga, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari Malentxo Arruabarrena eta Ertzaintzako zuzendari Gervasio Gabirondo izan dira. Nafarroako ordezkariaren aldetik berriz, Presidentetza, Justizia eta Barneko kontseilariak gain, Barneko zuzendari nagusi Francisco José Fernández eta Foru Poliziaren jarduneko buru Juan José Salaberri izan dira.

Hitzarmena sinatzeko ekitaldia amaituta, bi ordezkariak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren instalazioak bisitatu dituzte, Arkauten.